

## **BASERRITARRAK BERMEON-I**

### ***Anton Erkorekak Bermeon bildutako ipuin zaharra***

Bermeon jaiak izan ziren, eta jai guztietan legez, baserrietako jendea etorri zen Bermeora.

San Pedro <<Narru>> egon zen hiru iturrien aurrean portura begira erresaka handia zegoelako. Handik hiruzpalau baserritar igaro ziren eta hauek ere itsasoari begira zihoazen. Pedro <<Narruk>> esan zien:

- Zuei, baserritarroei lurrak ez dizue kasurik egiten, baina guri, marineruei, urak bai.

Ikusi zutenean olatuaren bizkarra gorantz zetorrela esan zien baserritarrei:

- Ikusiko duzue. Orain urari gorantz etortzeko esango diot eta gorantz egingo du.

Eta esan zuen:

- Ia, gora!

Eta ura gora igo zuen (erresakarekin. Baina baserritarrek hau ez zekiten). Eta gero, erresaka kanporantz joan zenez esan zuen:

- Eta orain, benga behera!

Eta ura behera joan zen.

Baserritarrak hau ikusikeran tontotuta geratu ziren eta egia zela pentsatu zuten.

**Anton Erkoreka**

Etnografía de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniene Bilduma

Bilbao, 2000